

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA  
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

### 6315

*243/2021 DEKRETUA, abenduaren 14koa, baimen hauek ematen dituenen: SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari baimena ematen zaio Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Instituzionalaren zuzeneko eta zeharkako titulartasuneko akzioen ordezkari baimena ematen zaie sozietate horren estatutuen 2. artikulua aldatzeko onspena emateko.*

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak, 2021eko ekainaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen Eusko Jaurlaritzarengana jotzea baimena eman ziezaien SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak Parque Tecnológico – Teknologi Elkartegia SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko. Parte-hartze hori, guztira, 2.099.986 eurokoa izango litzateke, hau da, % 100ekoa. Eskaera hori, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen 13. xedapen gehigarriaren 5. paragrafoaren c) letraren babespean egin zen (hamahirugarren xedapen gehigarriaren bidez, SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia sortzen da, zuzenbide pribatuko ente publiko gisa). Eragiketa horren ostean, % 67,78koa izango da SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren parte-hartzea.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 110.1 artikulua ezartzen duenez, Enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Kapitala ordezkatzeko duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak, doako eskuraketa ez baldin bada behinik behin, nahitaez adieraziko du zein den sozietatearen xedea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak sozietatean zuzenean nahiz zeharka izango duen partaide-tzaren ehunekoa ere.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko den azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren 111.2 artikulua ezartzen duenez, zuzenean nahiz zeharka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren edo instituzionalaren titulartasunpekoak diren akzioen ordezkari sozietate-estatutuak onartzeko edo aldatzeko onarpena emateko, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute, ondareari buruzko eskumenak dituen sailburuak eta sozietatea loturik duen sailburuak biek batera proposaturik.

Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Parkea, S.A. sozietatearen helburuak honako hauek dira: inbertsio eta ekimen industrialak sustatu eta bultzatzea, industria-pabiloien konplexu bat eraikiaz, eta horiek, errentamendu-formulen, jabetza-transferentzien edo prekarioko lagapenaren bidez kudeatuaz, lokalen eta zerbitzuen promozioa eta komertzializazioa eginez, eta haietan instalatu nahi diren enpresak gonbidatu eta hautatuaz; enpresa horiek teknologia aurreratuko jarduerak

2021eko abenduaren 20a, astelehena

burutu beharko dituzte, bereziki elektronikaren edo informatikaren arloan (hardware eta software); guzti hori produktu, prozesu eta zerbitzuei aplikatuaz, eta halako instalazioetan obligaziozko diren zerbitzuen ustiapen eta kudeaketa iraunkorarekin aurrera eginez; zerbitzuok honakoak lirateke: testuen prozesaketa, telexa, ordenagailu bidez marrazketa, datu-baseekiko konexioa, ordenagailuen alokairua, bulegoetako makinaria, batzar-aretoak eta telefono bidezko arreta pertsonalizatua.

Kapital-zabalkuntzarako arrazoia SPRIK sozietateari egonkortasun finantzario handiagoa emateko eta hirugarrenen baliabideak murriztuz inbertsioen finantzaketarekin jarraitzeko helburuarekin 2019an emandako mailegua ezereztea zen.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak batera proposaturik, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 14ko bileran egindako proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea SPRI-Ekonomia-garapenerako Euskal Agentziari Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko. Bi milioi laurogeita hemeretzi mila bederatziehun eta laurogeita sei (2.099.986) eurokoa izango da parte hartzea, hau da, zabalkuntzaren % 100. Eragiketa horren ostean, % 67,78koa izango da SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren parte-hartzea.

2. artikulua.– SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren titularitatekoak diren akzioen ordezkari baimena ematea kapital-zabalkuntzaren ondorioz Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia SA sozietatearen estatutuen 2. artikulua aldatzeko onespena emateko. artikulua horren idazketan, sozietatearen kapitalaren zenbateko berria jasoko da.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 14an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,  
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.